



Kulturola egitasmoa aurkeztuko dute gaur Sandiusterrin

KULTUROLA, euskal kultura sustatzeko gunea osatzeko bilerak egiten ari da talde bat azken urte eta erdian. Gune horrek izan beharko lituzkeen ezaugarriak eta baldintzak zehaztu dituzte eta gaur gune horretan interesa duten herritarren aurrean aurkeztu nahi dute proiektua. Aurkezpena goizeko 11:00-etan, Sandiusterrin. ||

Pausoz pauso, Ereñotzuko auzo udala sortzen

AUZO udala sortzeko bidean, pausoak ematen ari dira Ereñotzun eta auzo udalak zein konpetentzia beharko lituzkeen proposamena osatu du auzo elkarteak. Bileran izan zuten joan den asteburuan eta bertan gaiaren inguruan hitz egin zuten auzotarrek. Bestalde, Apaizetxeko obrak ere aurrera dijoaz eta bertan egin zuten bilera, lehen solairuan. /3

Bigarren eskuko azoka gaur goizean Atsegindegin

BIGARREN eskuko azoka izango da gaur goizean Atsegindegin, hileko azken larunbateroko moduan. Oraingoan ordea, azoka San Markos Mankomunitatearekin elkarlanean antolatu du Udalak. Postuez gain, informazio puntua, animazioa eta tailerrak izango dira eta interesa duenari poltsa berrerabilgarri bat emango zaio. Goizeko 10:00etatik 14:00etara, Atsegindegin. ||

❖ CHILLIDA LEKU

Tamayo pintura lehiaketa gaur

Joan den astean pintura lehiaketa zen egitekoa Chillida Leku museoan, baina eguraldia dela eta, astebete atzeratzea erabaki zuten. Pintura lehiaketan izena eman zutenek gaur joan beharko dute museora, eta aurreneko postuak lortzen dituztenek, sari interesgarriak izango dituzte. Goizeko 10:00etatik aurrera. ||

❖ KONTZERTUA

Txistu kontzertua bihar Arkupetan

Hernani Musika Eskolako txistularien kontzertua izango da bihar. Txistu erreperitorio klasikoak, dantza doinuak eta hainbat bitxikeria ere entzun ahal izango dira. Bihar, eguerdiko 12:30etan, udaletxeko arkupetan. ||

◆ TENISA

Maidar Martin Espainiako txapeldun

Hernaniko tenis jokalaria Espainiako txapeldun gelditu da, Gasteizen. /6

GAUR KRONIKAN

Tibeteko jardunaldiak /2

Laburrak /2

Ereñotzuko auzo udala /3

KIROLAK /6-7

Astigarragako pintura
lehiaketa /8



Ikasleek proposamenak luzatu dizkiote Udalari

ELIZATXO, Langile, Txirrita eta Urumea ikastetxeetako ikasleak Pleno areto nagusian izan ziren atzokoan. Ikasturtean zehar, Eskolako Agenda 21 programaren barruan, hondakinen gaia landu dute. Atzokoan, egindako lana, hartutako konpromezuak azaldu zituzten eta baita proposamenak luzatu ere, herria hondakinen kudeaketari dagokionean hobetzeko. ||



KOXKA ALBAITARITZA

Nabarra oinatx, 9
ASTIGARRAGA

☎ 943 01 77 68



I N B E R T I T Z A I L E A

ENPRESA - AUKERA BIKAINA

295.000 euroren truke **SESA TOOLS, S.A.** (Hernani)
enpresaren azkioen %25 saltzen da.

Abstenitu bitartekariak

Erref. Inbertitzailea - 20080 Donostia 841 posta-kutxa.
ventasatools@gmail.com



Tibeteko artisautza eta janaria, gaur Plaza Berrin

TIBETI buruzko ekitaldiei jarraipena emanez, gaur Tibeteko artisautza eta jakiak izango dira Plaza Berrin, goiz eta arratsalde. Tibeti buruzko jardunaldiak astelehenean hasi ziren eta ordutik hitzaldia eta erakusketa izan dira, Udalak eta Kooperazio Taldeak antolatuta.

Mandala Hernaniko herriarentzat
Bestalde, egun hauetan Tibeteko mon-

jeak mandala bat egiten aritu dira, emandako laguntzarengatik Hernaniko herriari eskerrak emateko. Atzoko ekitaldian monjeek azaldu zuten, Hernanin egin duten mandala bake-rako mandala da eta koloretako marmol hautsez egin dute.

Horrez gain, esker ona adierazteko, hemendik aurrera Tibeteko monjeek beren errezuak Hernaniko herriari ere eskainiko dizkiote. ■

❖ MOBILIZAZIOAK

Marian Beitialarrangoitia Alkateari babesa emateko mobilizazioak astelehenean

Mobilizazioak deitu dituzte astelehenerako, izan ere egun horretan Marian Beitialarrangoitia Alkatea Madrilén izango da deklaratzeko, Espainiako Auzitegi Nazionalen Fernando Grande Marlaskak deituta. *Dignidad y Justicia* taldeak aurkeztutako kereila da oinarria, Jose Manuel Aristimuño *Pana* parkearen izena dela eta. Astelehenerako bi deialdi egin dituzte: eguerdiko 12:00etan, Plazan; eta 20:00etan, Zinkoenean. *Salbuespen egoera stop* izango da lema. ■

❖ GOIZ EGUZKI

San Joanetako torneoan izena emateko aukera

San Joanetako txapelketa ezberdinetan izena emateko epea irekita dago dagoeneko, ekainaren 4a bitartean. Igela, toka eta botean jokatu ahal izango da. Txapelketa ekainaren 4an hasiko da, arratsaldeko 18:00etan. ■

❖ OSIÑAGA AUZOA

Mus txapelketa gaur

Osiñagako jaiak izango dira ekainaren 7 eta 8an eta girotzeko mus txapelketa antolatu dute gaur. Txapelketa arratsaldeko 16:00etan hasiko da, Arriatsun. Izena momentuan eman behar da, 10 euro ordainduta. Aurreneko lau bikoteek sari ederak izango dituzte. Bestalde, bihar etxeko pasako dira jaietako egitaraua banatzera eta ekainaren 8an Arriatsun izango den bazkarirako izenak hartzera. ■

❖ ZINEA BITERIN

‘El valle de Elah’ asteburuan

El valle de Elah filma ikusi ahal izango da asteburuan, Biterin. Gaur 19:30etan eta 22:30etan; bihar 19:30etan. ■

❖ MUSIKA

‘DJ Rockaiet’ gaur Bodegan

DJ Rockaiet musika jartzailea izango da gaur Bodega tabernan. *Rockabilly, rock’n’roll, garage, rhythm’n’blues, soula* eta beste hainbat musika estilo entzun ahal izango dira. 23:00etatik aurrera. ■

❖ AHT GELDITU

Donostiara joateko deia gaur

AHTaren kontrako Gelditour furgonetak Euskal Herrian barrena egingo duen bira bukatuko da gaur Donostian. Hernanin astelehenean izan zen eta horren bueltan aste osoan zehar ekintzak izan dira, hitzaldia, bizikleta martxa eta mobilizazioak, besteak beste. Gaurkoan Hernaniko AHTaren kontrako taldeak deia egin du Donostian izango den manifestaziora joateko, arratsaldeko 17:30etan aterako da Boulevardetik. ■

❖ ASTIGARRAGA

Haurrentzako jolasak gaur, eta bihar bigarren eskuko azoka

Astigarragako kultur egitaraua bete bete dator asteburuan. Gaur ludijaia izango da, haurrentzako jolasak, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara, Apeztegi plazan. Bihar, bigarren eskuko azoka izango da J. Barandiaran plazan, San Markos Mankomunitateak antolatuta, goizeko 10:00etatik 14:00etara. ■

AEKk antolatutako kultur astea

Kultur astea izango da Astigarragan ekainaren 3tik 6ra bitartean. Ekainaren 3an, goizeko 09:30etan, Amaia Aierzak gorputzeko minak arintzeko triki-mailu errazak erakutsiko ditu, kultur etxean. Arratsaldeko 19:30etan, Oier Agirresarobek gidatuta, Jolastuz ikasi, eta ikasiz jolastu saioa izango da. Bertan hurrekin euskeraz egiteko jolasak ikasteko aukera izango da. Saioa J. Barandiaran plazan izango da. Asteazkenean, autoikaskuntza topaketak izango dira, goizeko 10:00etatik 14:00etara, kultur etxean. Arratsaldeko 19:30etan, Aitor Txarterinak ipuiak kontatuko dizkie helduei. Ostegunean, kantu kalejira izango da herrian barrena, 20:00etan Ikatza tabernatik abiatuta. Ostiralean, euskaltegiaren eta hizkideen afaria izango da, Zipotza elkartearen. ■

❖ GOIZUETA

Xabier Berroeta zenaren omenezko kontzertua gaur

Xabier Berroeta goizuetarra hil zela urtebete pasa da eta hura gogoratzeko ekitaldi berezia izango da gaur Goizuetan. Lesakako Udak Bandak kontzertua eskainiko du, 12:30etan, Plazan (euria bada Pilota plazan). Tartean Joakin Ortega *Kanariok* haren omenez egindako pieza bat joko dute. ■



Gazte Asanblada Astigarragako olinpiadetan

Hernaniko Gazte Asanblada Astigarragan izan zen joan den asteburuan, Astigarrako Gazte Asanbladak antolatutako olinpiadetako bukara jaialdian. Hernani eta Astigarragako gazteak herri kirolekin lehiatu ziren eta azkenean berdinean bukatu zuten. ■

❖ PUBLIERREPORTAJEA



Koxka Albaitaritzako Mari Carmen (dendaria), Susana (albaitaria) eta Uhin (ileapaintzailea)

Koxka Albaitaritzak, Astigarragan, maskoten zaintzan adituak

Koxka Albaitaritzak joan den abenduaz geroztik bere zerbitzuak eskaintzen ari da Astigarragan; txakur, katu eta beste hainbat maskoten beharrak asetzen. Albaitaria Susana da eta bertan oinarrituko kontsultak egiten ditu: errebisioak, erradiografiak eta abar. Atentzio haundiagoa behar den kasuetan, berriz, klinika batekin elkarlanean aritzen da eta bertan tratatzen ditu maskotak. Ileapaindegian berriz, Uhin aritzen da eta bertan txakurrak eta katuak garbitzeaz gain, arrazako korteak ere egiten dizkie. Dendan Mari Carmen topatuko duzue eta aukeran izango dituzue botikak, jatenak, maskotentzako konplementuak, jostailuak eta abar luze bat. Gure maskotek badute lasai ibiltzeko motiboa, beraz.

Koxka Albaitaritzak. Nabarra Oinatz, 9 - Astigarraga. Tel.: 943 01 77 68

Pausoz pauso, auzo udala sortzeko bidean

Auzo udalak zer konpetentzia izango lituzkeen proposamena osatu dute Ereñotzun. Udalarekin konpetentziak zehaztean, aurrekontu bat onartzea izango da hurrengo pausoa. Apaizetxeko obrak aurreratuak daude.

AUZO udala sortzeko bidean, pausoak ematen ari da Ereñotzuko auzo elkarte eta joan den asteburuan batzarra izan zuten, bertako bizilagunek. Auzo elkartearen iritzian, auzo udalak zer konpetentzia beharko lituzkeen zehaztu dute, eta Udalarekin negoziatu behar dituzte orain puntu horiek. Hurrengo pausoa konpetentzia horiek garatzeko aurrekontua adostea izango litzateke.

Lau arlo desberdin

Udal zerbitzuak lau atal desberdinetan banatu dituzte eta arlo bakoitzean konpetentzia nork beharko lukeen proposamena egin du Ereñotzuko auzo elkarteak:

1) Zerbitzuak eta azpiegiturak: ura, argia, jardinak, bideak, baso zaintza, kale garbiketa, bankuak, zakarrontziak... auzo udalak proposatzen du erdi eta erdi kudeatzea arlo hauek Hernaniko udalak eta auzo udalak.

2) Kultura, kirola eta aisialdia: Auzo udala izango litzateke alor honetan protagonista Hernaniko Udalaren laguntzarekin.

3) Oinarrizko gizarte zerbitzuak: adineko pertsonen zaintza, adineko pertsonen aisialdia, familia eta elkarbizitza, haurtzaroa eta gazteria, elbarrientzako zerbitzuak... auzo udalak proposatzen du erdi eta erdi kudeatzea arlo hauek Hernaniko udalak eta auzo udalak.

4) Gai administratiboak: hiritzaintza baimenak, zerga eta tasak... auzo udalak proposatzen du Udalak izatea eskumena, eta auzo udalak zerbitzua auzotarrei



Larunbateko batzarra, Apaizetxeko areto nagusian, obrak bukatu berritan. Berrogei lagun inguru elkartu ziren.

gerturatzeko ahalegina egitea, eskaerak Ereñotzun bertan seilatzeko aukera izatea...

Pausoz pauso

Auzo elkarte lege sortzeko hauek dira jarraitu beharreko pausoak: edukiak eta aurrekontua onartu Udal Plenoak; auzoan referenduma egin eta memoria bat osatu, ikusteko herriari ez diola kalterik eragiten eta auzoari mesede egiten diola; eta azken pausoa litzateke Diputazioak onartzea.

Apaizetxea, aurreratu

Ereñotzun, auzo udala sortzeaz gain, auzoaren beharretarako eta etorkizunean auzo udala kokatzeko Apaizetxea zenean ari dira obretan, Hernaniko Udalak eta Behemendik diruz lagunduta. 2006an sinatu zuten hitzarmena

Hernaniko udalak eta Gotzaitegiak, Apaizetxea zena Udalari 30 urterako dohain uzteko. Helburua auzotarren beharrak aseko zituen lokal bat egokitzea zen eta etorkizunean auzo udalaren egoitza bertan jarriko lukete. Hitzarmenaren ondoren, eraikina gutziz berritzeko obrak hasi zituzten Apaizetxean, eta zati haundi bat egin dago dagoeneko, beste zati haundi bat falta bada ere. Udalak eta Behemendik jarri dute dirua: Udalak 2007ko aurrekontuan 241.000 euro inguru jarri zituen eta 2008ko aurrekontuan, 40.000 euro. Behemendik, berriz, 90.000 euro jarri zituen 2007an eta 40.000 euro 2008an. Diru honen zatirik haundiena gastatua dago oinarrizko obra egiten eta falta denarekin areto nagusia ekipatu eta lehenengo solairua egokitu nahi da. ■

Herritik aparte dagoen auzo baten beharrak

AUZO udalaren gaia behin baino gehiagotan atera da azken urteotan, baina jendea kokatze aldera, oinarrizko arrazoien inguruan galdetu diegu Ereñotzuko auzo elkarte kideei. Herri gunetik hain urruti egoteak, ahaztura sortzen du askotan eta ez dira kontuan hartzen bertako herritarren oinarrizko beharrak. Ereñotzu Hernaniko herri gunetik sei kilometrora dago eta aldi berean oso sakabanatuta daude etxeak. Garraiobide publiko oso gutxi dago eta adineko, ume eta kotxerik ez duten auzotarrek zailtasun haundiak dituzte Hernanira etortzeko. Horrez gain, oinarrizko zerbitzurik ez da auzoan. Beraz, kaleko biztanleek duten gizarte-kalitatera gerturatzeko, erreminta ona izan liteke auzo udala, zenbait zerbitzu gerturatu eta bertatik gestionatzeko. Auzo elkarteak argi utzi duena da, inoiz ez dutela herri izatea eskatu, helburuak bizi kalitatea hobetzea eta auzoaren identitatea mantentzea dira.



ziklo guztiak
euskaraz

TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA



Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

BESTEAK BESTE:

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

➤ Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

➤ Informatika Sistemen
Administrazioa

➤ Eraikin eta Prozesu Instalazioen
Mantenimendu eta Muntadura

➤ Erregulazio eta Kontrol
Sistema Automatikoak

➤ Administrazio eta Finantzak
➤ Metal Eraikuntza

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra

Zer ikasi, ikasleen une erabakigarria

Irailetik aurrera hezkuntza ziklo berri bati ekingo diotenak zer egin erabakitzen ariko dira honez gero. Besteek, argi izango dute. Batzuentzat zein besteentzat, ekainaren 2tik

13ra zabalik izango da erdi eta goi mailako zikloetan aurre matrikulatzeko epea. Urnietako Salesiar ikastetxeko zuzendari Mikel Ormazabalek xehetasun gehiago ditu.

2008-09 ikasturteak oro har zer nobedade dakartza?

Mikel Ormazabal: Une honetan, trantsizio egoeran gaude, Lanbide Heziketan titulu berriak ateratzekotan baitira. 1200 eta 1400 ordukoak diren Erdi Mailako ziklo batzuk 2000 ordutara pasatzera doaz. Baina aldaketak atzerapen handiz datoz. Bospasei ziklo aldatu dira, baina ikasturtean zehar aldatzeko asmotan gabiltza.

Bestalde, Lanbide Heziketako lege berria atera da eta horrek ikastetxe egitura desberdinak eskatzen ditu. Eusko Jaurlaritza, ikastetxeen sailkapen hori nola burutu, lege barnean nola txertatu lantzen ari da.

Aniztasun handiagoa dago eskaintzan. Alor teknikitik kanpo dauden titulazioek zer moduzko harrera dute?

M.O.: Une honetan, gehien jaitsiko diren tituluak administrazio alorrekoak izango dira, ez baitute arrakastarik izan. Ez dago horren beharrik. Berriz, ziklo industrialei eman behar zaie erantzuna. Hor izugarritzeko kezka dago. Une honetan lan munduak eskatzen dituen teknikari kopurua betetzeko gai ez gara, ikasle faltagatik.

Matrikulazioari begira, zer nolako aurreikuspenak beraz?

M.O.: Ikasleen kopurua jaitsiko da. Kezka asko dago ikastetxeetan. Ikastetxeen eta irakasleen etorkizuna hor dago. Kanpora begira, enpresek behar dituzten teknikariei erantzunik ez zaie ematen. Unibertsitateak ere jendea nahi du, baina ikasle gutxiago dago. Lehia dago Lanbide Heziketa eta Unibertsitatearen artean.

Datozen urteetan ikasle faltak bere horretan jarraituta, ondorioak kezagarriak izan daitezke?

M.O.: Bai. Lau urteetan izango da. Lanbide Heziketako ikastetxeok irakasleen eszedenteak sor daitezkeen kasuetan, kontratu programen bidez, irakasle horiek



Lanbide Heziketan titulu berriak sortzekotan dira.

Une honetan lan munduak eskatzen dituen teknikari kopurua betetzeko gai ez gara, ikasle faltagatik

hezkuntza sistema barruan mantentzea eskatzen ari gara; tarte horretan, formakuntza berri bat egin dezaten.

Lau urte barru ikasle kopurua igotzen den heinean, irakasle eta ingeniari horiek beharko ditugu. Hezkuntza Sailak horretarako borondatea du.

Bestela, zer nolako erronkak ditu Lanbide Heziketak?

M.O.: Teknologia berrietan murgildutako hezkuntza eskaintzea. Enpresek eskatzen dutena, baloreetan oinarritutako hezkuntza da. Bestela, Teknika erakundearekin elkarlanean proiektu berriak gizarteratzea, hitzarmenen bidez enpresekiko hartu eman estua lortzea, ikastetxeetako ingeniarien birziklatzea enprestan egitea, ikasleek kontratu bidez lana eta ikasketak uztartzea...

Matrikulazio garaia badator.

Gustuko duena aukera dezala, baina ikusi dezala gustuko duen titulazio horrek zer irtenbide profesional dituen

Zuengana doan ikasle berri horri zer esan?

M.O.: Gustuko duena aukera dezala, baina ikusi dezala gustuko duen titulazio horrek zer irtenbide profesional dituen. Ondo pentsa dezala zer egin nahi duen. Lanbide Heziketan aukera handiak daude. Askok lantzen ari gara ikasleen sormena. Merezi du, lan mundurako oso ondo prestatzen du.

DBH eta Batxilergoekin alderatuta, jaitsi egiten da zikloetan euskaraz matrikulatzen direnen kopurua. Nola interpretatu behar da hori?

M.O.: Lanbide Heziketako ikastetxeok guztia euskaraz eskaintzeko borondatea, nahia eta helburua dugu. Ikasle guztiak ikasketak euskaraz egitea eskatuz etorriko balira, euskaraz emango


litzateke. Baina une honetan, ez da halakorik gertatzen eta gelak osatzeko ikasle kopurua oso murrizta da. Hemen-dik 2012 arte, ikasle kopurua bai batxilergoan zein Lanbide Heziketan oso txikia izango da. Lehen Derrigorrezko Hezkuntzan izandako ikasle krisialdia, orain etorri zaigu etapa hauetara. Horrek eredu bakarra jartzea ekarri digu, B eredu nahiko sakona. Ikastetxeok ahal dugun ikasleei ahal dugun neurrian erantzuna euskaraz eman nahi diegu. Agian gehiago egin beharko genuke, baina horretarako ere malgutasun handirik ez dugu. II

BURUNTZALDEAREN KANPAINA BERRIA

"Aukera ezazu, aukera gehiago eta hobeak izan ditzazun" lema-pean aurkeztu dute Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ondorengo ikasketak euskaraz egitera bultzatzeko kanpaina. Batxilergo edota Erdi nahiz Goi Mailako zikloetako eskaintzaren batean matrikulatzera doazen ikasleei zuzendutako ekimena da, aurrekoetan ez bezala hezkuntza etapa honetan D eredua ez baita nagusi gaur egun. Zikloetan aurre matrikulatzeko epea ekainaren 2tik 13ra izango da.



Matrikulazio kopurua jaisteak kezka eragiten du.

**Euskarako planak enpresetan 2004. urtean****Eskualdean 2008. urtean**

Andoain	Mondragon Sistemas de Información Latz S. Coop.
Astigarraga	Tximela S.A.
Hernani	Orona S. Coop. Perfiles Especiales Selak S.A. Hator Aholkularitza
Lasarte-Oria	Aduriz de Lasarte S.A.
Urnieta	Deman S.A.
Usurbil	Fagor Automation - Berriola S.Coop. S. Izaguirre S.A. Fagor V. Luzuriaga Usurbil S.A.

Euskaraz ikasteko aukerak Buruntzaldean

2008 - 2009 ikasturtea

Erdi-mailako heziketa-zikloak	Ikastetxea	Herria
Ekipa eta instalazio elektroteknikoak	Hernani BHI - Santa Barbara auzoa, z/g - 943 551 188	Hernani
Mekanizazioa		
Administrazio kudeaketa		
Mekanizazioa		
Ekipa eta instalazio elektroteknikoak	Usurbil GLHBI -Arbitza bidea, 29 - 943 364 600	Usurbil
Makineria eta linea-eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa		
Hotz, geroztze eta beroa sortzeko instalazioen muntadura eta mantenimendua		
Merkataritza (B)	La Salle-Berrozpe Ikastetxea - La Salle etorbidea, 5 - 943 590 557	Andoain
Makineria eta linea-eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa (B)	Jose Langile Deuna Salesiar Ikastetxea - Ergoien auzoa, 6 - 943 551 789	Urnieta
Ekipa eta instalazio elektroteknikoak (B)		
Makineria eta linea-eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa (B)		
"B" Ereduan ikasgaiak zein hizkuntzatan ematen diren ikastetxe bakoitzean galdetzea komeni da		
Usurbil GLHBI eta Hernani BHI eskaintzen da Goi Mailako Heziketa Zikloetarako sarbide-probaren ikastaroa D ereduan.		

Goi-mailako heziketa-zikloak	Ikastetxea	Herria
Mekanizazio bidezko produkzioa	La Salle-Berrozpe Ikastetxea - 943 590 557	Andoain
Gizarte integrazioa	Leizaran BHI - Plazaola kalea; 23 - 943 300 078	Andoain
Errealizazioa	Zine eta bideo eskola - Ama Kandida - 943 594 190	Andoain
Proiektu mekanikoen garapena	Hernani BHI - Santa Barbara auzoa, z/g - 943 551 188	Hernani
Instalazio elektroteknikoak		
Administrazioa eta finantzak		
Mekanizazio bidezko produkzioa	Usurbil GLHBI - Arbitza bidea, 29 - 943 364 600	Usurbil
Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoak		
Eraikin -eta prozesu- instalazioen mantenimendua eta muntadura		
Txandakako prestakuntza		
Administrazioa eta finantzak (B)	La Salle-Berrozpe Ikastetxea - La Salle etorbidea, 5 - 943 590 557	Andoain
Produktu elektronikoen garapena (B)		
Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoak (B)		
Instalazio elektroteknikoak (B)	Jose Langile Deuna Salesiar Ikastetxea - Ergoien auzoa, 6 - 943 551 789	Urnieta
Argitalpen diseinua eta produkzioa (B)		
Arte grafikoen industrietarako produkzioa (B)		
"B" Ereduan ikasgaiak zein hizkuntzatan ematen diren ikastetxe bakoitzean galdetzea komeni da		

Batxilergoak	Ikastetxea	Herria
Teknologia	Aita Larramendi Ikastola	
Giza eta gizarte zientziak	Txistoki pasealekua, z/g - 943 593 525	Andoain
Teknologia	La Salle-Berrozpe Ikastetxea - La Salle etorbidea, 5 - 943 590 557	Andoain
Giza eta gizarte zientziak		
Teknologia	Hernani BHI - Santa Barbara auzoa, z/g 943 551 188	Hernani
Giza eta gizarte zientziak	Lasarte-Usurbil BHI	
Natur eta osasun zientziak	Buenos Aires aldapa, 1 - 943 372 852	Lasarte-Oria
Giza eta gizarte zientziak	Jose Langile Deuna Salesiar Ikastetxea - Ergoien auzoa, 6 943 551 789	Urnieta
Teknologia		
Teknologia		
Natur eta osasun zientziak	Leizaran BHI - Plazaola kalea; 23 - 943 300 078	Andoain
Giza eta gizarte zientziak	La Salle-Berrozpe Ikastetxea - 943 590 557	Andoain
Natur eta osasun zientziak (B)		
"B" Ereduan ikasgaiak zein hizkuntzatan ematen diren ikastetxe bakoitzean galdetzea komeni da		



Andoain, Astigarraga, Hernani,
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskarako Batzordeak



IKASTETXEA
La Salle-Berrozpe ikastetxea
Aita Larramendi ikastola
Hernani BHI
Lasarte-Usurbil BHI
Salesiar ikastetxea
Usurbil GLHBI
Leizaran BHI
Zine eta bideo eskola



**Ekainaren 2tik 13ra
zabalik izango da
erdi eta goi mailako
zikloetan
AURRE
MATRIKULATZEKO
epea**

◆ TENISA

Maider Martin Espainiako txapelkun

Euskal Herriko Txapelketa ere irabazi berri du tenis jokalaria hernaniarrak eta Espainiako txapelkun gelditu zen lehengo astean Gasteizen. Ekainean Italiara dijoa selekzioarekin, mundu mailako txapelketa bat jokatzeraz.

HIRUROGEI bat sari izango ditu dagoeneko etxean, baina lehengo astean Gasteizen irabazitakoak adinako pisua dutenak gutxi. Espainiako txapelkun gelditu zen Maider Martin tenis jokalaria hernaniarra, infantil mailan, txapelketa gogorra jokatuta. Bost aurkari gainditu behar izan zituen: lehen partiduan kataluniako jokalaria bat, bigarren, galiziarra, hirugarren, madrildarra, laugarren, beste kataluniar bat eta finala Madrildago Silvia Garcien aurka jokatuta zuen eta 6-4 eta 7-5 irabazi zion, asko borrokatuta. Beraz, Euskal Herrian maila haundiegirik ez da teniseko gazte mailatan, baina Espainia mailan bai, eta hernaniarrak erakutsi du puntaren puntan dagoela.

Eguneroko ahalegina

Maila horretan aritzeko doaiak behar dira, baina lana ere gogotik egin behar da. Hernaniar gazteak egunero entrenatzen du, 3 orduz, eta teknikaz gain, fisikoa ere asko lantzen dute. Ondarretako tenis eskolan dabil, eta bera infantila izanagatik, kadete mailako neska-mutilekin egiten ditu entrenamenduak. Horrek maila haundiagoan aritzeko aukera ematen dio hernaniarrari. Urtean zeharreko entrenamenduez gain, udaran «tenisaren sehaskara» Kataluniarra joan ohi da ikastaro bat egitera.

Ondarretako tenis eskolan jende asko ibiltzen da, baina konpetizioan gutxi. Gipuz-

koan beste bi eskola bakarrik daude: Txingudikoa eta Intxaurrondokoa. Horiez gain, Bizkaian daude eskola gehiago, baina Euskal Herrian orokorrean, tenisa ez du indar haundirik.


Espainiako txapelketako finala Silvia Garcia madrildarrari irabazi zion partidu gogor batean, 6-4 eta 7-5.

Hurrengo txapelketa garrantzitsua ekainean du Italian. Espainiako selekzioarekin dijoa bertara.

Maider Martinek aurtengoa du infantil mailako azken urtea eta datorren urtetik aurrera kadeteetan ariko da.

Munduko txapelketara

Hurrengo txapelketa garrantzitsua ekainean du, Italian, Summer Cup-a edo Udarako Kopa. Espainiako selekzioarekin dijoa, mundu mailako txapelketara. Otsailean ere mundu mailako txapelketa batean izan zen Alemanian, eta badaiki Italian nolako maila aurkituko duen: «nibel haundia dago» aitortu du hernaniar gazteak. Errusiarrak eta serbiarrak dira maila horretan ondoen ibiltzen direnak eta Italian partidu bat irabazteaz-



Maider Martin Espainiako Txapelketa irabazi berriaren ondoren, Mickey eta Plutorekin.

rekin konformatuko litzateke Maider Martin, baina «ahal dena egitera» dijoala argi utzi du.

Nike txapelketak

Azken aldian irabazi dituen sarietan, bada beste bat garrantzia haundikoa, Aste Santuan Nike txapelketako lehenengoa irabazi baitzuen Bartzelonan. Nike-k 5 txapelketa antolatzen ditu Estatuan eta zortzi tenislarik onenek mastera jokatuko dute irailean. Orain Sevillan da bigarren txapelketa, baina Hernaniko jokalaria ez dauka joateko modurik. Hurrengo, ordea, Valentzian izango da eta hara joateko asmoa badu, mastera sailkatzeko puntuak lortzeko helburuarekin.

Kadete mailara saltoa

Maider Martinek 13 urte ditu eta aurtengoa du infantil mailako bere azken urtea. Datorren urtean kadetea izango da eta bera baino jokalaria zaharragoen kontra jokatzea egokitu zaio. Euskal Herrian kontrariorik ez duela ikusi du, aurtun junior mailako txapelkun geratu baita, baina hortik aurrera hartzak estutu beharra izango du seguruenera. Bera horretarako pronto dago.



Eskubi kolpe gogorra

HERNANIARRA lurrean moldatzen da hobeto, pista gogorrean baino, eta eskubi kolpea du bere armarik onena. Indarrez ondo moldatzen da eta eskubiarekin min egiten du. Hobetu beharrekoetan sakea da berak garrantziarik gehien ematen diona: «ez naiz gaizki moldatzen, baina hobetu beharra daukat» adierazi dio Kronikari. Eta fisikoa lantzeaz gain, psikologiak ere eragin haundia du tenisean, buruz buru aritzen baitira ia beti. Bere garaian psikologo bat izan dute laguntzaile.



antenas
Telemar

943 33 26 00
943 55 33 99

**EGOKITU ZURE ANTENA
LURREKO TELEBISTA DIGITALERA**



LURREKO
TELEBISTA
DIGITALA


Eskatu ezazu
zure aurrekontua
konpromezurik gabe

DIGITAL+

Antenen inguruan
gehiago jakiteko
zatoz Telemar-era

YOLANDA

estetika zentrua



"Minceur 2011"
eta
"Slimmer-Plate 45"

BRONCE-BAZTERA



GURE GORPUTZA ETA
AZALA EZIN HOBETO
ZAINTEKO
AKZIO HIRUKOTZA DUEN
TRATAMENDU
ERREMODELATZAILERA

PUNTA PUNTA GORPUTZ TRATAMENDUAK,
"VACUMTERAPIA",
AURREGIRAKO TRATAMENDUAK,
"HIDRADERMIE",
FOTODEPILAZIOA...

**ZATOZ
ETA
PROBATU !!!
HASERAKO ESKAINTZA
FROGA DOHAIRIK**

estetica@yolanda.infonegocio.com ATZITETA 2. behe. Tfnoa: 943 55 32 73.

◆ ERRUGBIA

Infantil eta alebin mailako Landare Torneoa gaur

Sei talde ariko dira maila bakoitzean, tartean hernaniarrak.
Partiduak goizeko 10:00etan hasiko dira.

ERRUGBI eskolen arteko Landare Torneoa jokatu da gaur, alebin eta infantil mailan. Hernaniko gazteez gain, Hazparne, Azkaine-Sara, Biarritz, La Unica Gigantes eta Durangoko jokalariek bilduko dira gaur Landaren.

Taldeak bi multzotan ba-

natuko dituzte. A taldeko partiduak honela jokatu dira: 10:00etan, Hernani/Azkaine-Sara; 10:40etan, Hernani-Durango; eta 11:20etan Azkaine-Sara/Durango. B taldean honakoak izango dira partiduak: goizeko 10:00etan Hazparne/Biarritz; 10:40etan,

Hazparne/Gigantes La Unica; eta 11:20etan, Biarritz/Gigantes La Unica.

Eguerdiko 12:00etatik aurrera finalak jokatu dira. Txapela lortzeko lehian arituko dira bi multzoetan aurreneko postuan geratzen diren taldeak. ■

◆ BOLEIBOLA

Elizatxo Hernanik Euskadiko finala jokatu du gaur

Elizatxo Hernani infantil mailako boleibol taldeak Euskadiko Txapelketako finala jokatu du gaur, Karmelo Balda Donostiako kiroldegian, 14:00etan. Hernaniko taldea Gipuzkoako txapel-

duna izan da eta bigarren urtez jarraian Euskadiko Txapelketa jokatu du. Iaz txapel-dunorde izan ziren eta aurtengoan ere aurkari zaila espero dute.

Aurten infantil mailan emaitza onak lortu ditu Hernanik, Langile Gipuzkoako txapeldunorde izan da eta Urumea laugarren. ■

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				ERREMONTEA			
Infantilak Ohorezko liga	Hernani-Urola	Zubipen	Gaur 12:00	Larrea-Martinez I/Zulaika-Gaztelu	Galarretan	Gaur 16:00	
ERRUGBIA				Urrutia-Lizaso/Bitoria-Etxeberria III	Galarretan	Gaur 17:00	
Alebin eta infantil mailako Landaren torneo	Landaren	Gaur 10:00		Altuna II-Badiola/Iñigo-San Miguel	Galarretan	Gaur 18:00	
BOLA				Matxin III-Aizpuru/Agirresarobe-Olazar	Galarretan	Gaur 19:00	
Gipuzkoako txapelketa		Lasarten	Bihar				



ESKOLA KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

PALA-Gipuzkoako finalak				FUTBOLA-Gipuzkoako finalak			
Alebin neskak	Langile A-Pello Errota	14-25		Alebin neskak	Oiartzun-Elizatxo	4-1	
Infantil Neskak	Urumea B-Loinazpe A	25-23		FUTBOLA			
SASKIBALOI				Benj. Nesk.	Langile A-Langile D	2-1	
Benja. Mutil.	Elizatxo C-Urumea B	24-28		Benj. Nesk.	Langile B-Langile C	3-1	
Benja. Mutil.	Langile C-Langile D	18-10		Benj. Nesk.	Elizatxo A-Urumea A	4-0	
Benja. Mutil.	Langile B-Urumea A	18-28		Infantil Neskak	Langile-Urumea	0-4	
Benja. Mutil.	Inmaculada-Elizatxo B	14-06					



Atal honen babesle:

HERNANIKO UDAL KIROL PATRONATUA



◆ ERREMONTEA-Thermotechnic torneoa

Urrutia-Lizaso eta Bitoria-Etxeberria III final laurdenetako partiduan

Thermotechnic torneoko final laurdenetako partidua jokatu da gaur Galarretan, Urrutia-Lizaso eta Bitoria-Etxeberria IIIren artean. Urrutia eta Lizaso taldeko buru dira eta Bitoria-Etxeberria hirugarren. Beraz, aurreneko bikoteak irabaziko balu, zuzenean pasako lirateke semifinaletara. Torneoko partidua jaialdiko bigarrena izango da; gainerakoan beste partidu hauek jokatu dira: Larrea-Martinez/Zulaika-Gaztelu; Altuna II-Badiola/Iñigo-San Miguel; eta Matxin III-Aizpuru/Agirresarobe-Olazar. Galarretan, arratsaldeko 16:00etan hasita. ■

◆ BOLA

Gipuzkoako Txapelketako tiraldia, bihar Lasarten

Gipuzkoako Txapelketako tiraldia izango da bihar Lasarten eta bertan 26 bolariarik onenak bilduko dira, tartean 3 hernaniar: Joxe Ugalde, Miguel Burugain eta Antonio Miner. Aurreko txapelketetan emaitza onenak lortu dituzten bolariak, Txapelketa honetarako sailkatu dira. Egun bakarreko txapelketa izango da Lasartekoa eta fase ezberdinetan jokatu da: aurrena, seina bola botako dituzte, eta hortik aurrera bolariak eliminatzen joango dira, bi finalista geratu arte. Aurreneko zortzi bolariak Euskadiko Txapelketarako txartela lortuko dute.

Bestalde, joan den astean jokatu zen Urnietan Gipuzkoako Kopako azken jardunaldia. Bertan J.A. Ugarteburu izan zen lehenengo, 48 brila botata. Sailkapen nagusian aldiz, Segurako M. Aguirre izan da irabazlea, 141 brilarekin. Aurreneko hernaniarrak honakoak izan dira: Jose Ugalde, Elur Txori taldekoa, 133 brilarekin; M. Burugain, 132 brilarekin; M. Arrozpide 129 brilarekin; A. Miner, 129 brilarekin; F. Galarraga 125 brilarekin; A. Santos, 119 brilarekin; eta J.M.^a Usabiaga, 114 brilarekin. ■

◆ FUTBOLA

Ohorezko infantilek Zubipen jokatu dute gaur

Zubipen gaur Ohorezko mailako kadeteek jokatu dute, Urola K.E-ren kontra. Mailaz jaisteko fasea ari dira jokatzen eta animoak behariko dituzte. Gaur, eguerdiko 12:00etan, Zubipen. ■

◆ ZIKLOTURISTAK

Bihar Nuarbera

Zikuñako Ama zikloturista taldeko kideak bihar Nuarbera joango dira, 94 kilometroko bidea egitera. ■

◆ PELOTA

Aranoko pelota txapelketa

Aranon pala txapelketa antolatuta dute. Palan binaka eta eskuz banaka lauterdian. Izena emateko epea ekainaren 8an bukatuko da eta parte hartzeko baldintza bakarra da federatua ez egotea. Izena emateko Aranoko Kontzejura jo behar da edo telefono hauetara deitu: 948 51 42 79 eta 696 955 635. ■

FUNERARIA ORBEGOZO ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERREENTERIA

☎ **TELEFONOAK** 1 Taxiak: 943 550093 1 Udaltzaingoa: 943 248900 1 DYA: 943 464622 Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 1 Anbulatorioa: 943 006666 1 Jokalari anonimoak: 943 331103 1 Alkoholiko anonimoak: 943 331103
✚ **FARMAZIAK** 1 Egunez: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077 1 Gaez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA **GAUR** Eguzki uneak izango ditugu goizean. Eguerditik aurrera lainotzen joango da eta arratsaldean euria egingo du. Haizeak iparretik joko du. Tenperaturak 20°C inguruan.

BIHAR Eguraldi nahasia bihar ere. Ekaitz boladak, ater-uneak, ostateak... denetik izango da. Ipar-mendebalak joko du, bizi. Tenperaturak 15-19°C artean.

(euskalmet)



Ehun margolari Astigarragako kaleak koloreztatzen

MAIATZAREN 17an egin zen Astigarragako XIV. Aire Libreko Margo Lehiaketa, Astigarte taldearen eskutik, eta parte hartze haundia izan da aurtun ere, 99 margolarirekin. Epaimahaikoek adierazitakoaren arabera, maila oso altua izan da aurtengo edizioan, lau kategoria desberdinetan.

Hernaniarrak ondo Gazteenen kategorian, Hernaniko bi irabazle izan dira, biak ere Luis Telleria artista hernaniarraren ikasleak: 6-9 urte artekoetan Iker Sanchok irabazi du; eta 10-13 urte artekoetan, Aritz Hernani Astigarte taldeko kidea izan da lehen saria irabazi duena. 14-

16 urte artekoetan Sara Ramos donostiarrak irabazi du; eta 17 urtetik gorakoetan, Carlos Espiga bilbotarrak.

Epaimahaia osatu dute Félix Bárcena margolari donostiarrak; Luis Telleria margolari eta eskulturgile hernaniarrak; eta Goretti Mendizabal margolari astigartarrak. ■

Mª Dolores Aguirrezabala
eta
Ricardo Arrizabalaga

50 urte elkarrekin
1958-2008

EZ DADILA
ZUEN MAITASUNIK BUKATU
ZUEN MAITASUNAK
BERROGEITA HAMAR URTE HAUTETAN
LORATZEN JARRAI DEZAN

ZORIONAK
ZUEN SEMEEK, ERRAINAK, BILOBAK ETA ANAI-ARREBEK



Carlos Espiga bilbotarraren lan irabazlea.

▷ Sailkapenak

6-9 URTE

1. Iker Sancho (Hernani).
2. June Irurzun (Astigarraga).
3. Jikin Mariezkurrena (Astigarraga).

10-13 URTE

1. Aritz Hernani (Hernani).
2. Ainhoa Cristobal (Astigarraga).
3. Maialen Goikoetxea (Astigarraga).

14-16 URTE

1. Sara Ramos (Donostia)
2. Cristina Martín (Donostia)

17 URTETIK GORA

1. Carlos Espiga (Bilbo)
2. José Ramon Guerra (Gorliz)

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Volkswagen Transporter 2.5 tdi salgai, 102 CV, kanpinerako prestatua. 2001 urtekoa, ITVa pasata. Bizikletak eramatekoa, aire egokitua... **Prezioa 15.000 euro. Deitu: 686 200 536**

kotxea salgai. Mitsubishi Colt. **Deitu: 605 748 821**

Hernanin aukerako pixua salgai. Sukaldea, 3 logela, komuna, kalefakzioa... **Kanpoaldera. Deitu: 628 116 949.**

Pixua salgai Floridan (La Cumbren). 60 m2 ditu, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, 60 m2ko garbarea eta trasteroa. **Deitu: 627 501 957**

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. **Tel.: 656 78 64 15** (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. **Deitu: 943 33 07 35** (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Haserako eskaintza. Froga dohainik. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

www.barandiaranlizeoa.com
barandi02@ikastola.net 943213355

HEZIKETA ZIKLOAK
Diseinu Grafikoa
Kirol Ekintzak



Aurpegi bakoitzak bere estiloa dauka



AURPEGI TRIANGULATUA

Betaurreko luzeak eta dibertigarriak zure aurpegiko angeluak konpentsatzeko

biokbi
optika
Antziola, 14 - Tel.: 943 33 68 86



AURPEGI OBALATUA

Betaurreko txiki eta ausartekin zure pertsonalitatea azpimarratuko duzu

Aukeratu zureak!,
aholkatuko zaitugu



AURPEGI BOROBILA

Betaurreko errektangularrak zure bolumenak ekilibratzeko

Alejandra Alcibar
Optiko Optometrista, 12.244 zkia.